

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Tibeteko glaziar handienak ez du izotzik biltzen

NAIMONA'NYI-K, Tibeteko glaziar handienak, ez du bere baitan Gerra Hotzean egin ziren proba nuklearren arrastorik. Gauza bera gertatzen da Himalaiako beste glaziar batzuetan ere. Ikerlariek aztertutako geruzetan ez dute topatu proba nuklearrek utzitako partikula erradioaktiborik, nahiz eta Himalaian zein polo kasketetan oso arrunta den halakoa aurkitzea, izotz geruzen artean harapatuta geratzen baitira.

Tibeteko glaziar erraldoian partikula erradioaktiborik ez agertzeak izotz geruza berririk ez dela sortu adierazi nahi du, eta hori oso kezagarria da zientzialarientzat, inguruko ibai handiek –Indus, Ganges eta Brahmaputra adibidez– glaziar horretan eta antzeko beste batzuetan baitute sorlekua.

Naimona'nyi glaziarrean topatu diren azken partikulak berunezkoak izan dira, eta 1940 urte inguruan geratu ziren harrapatuta izotz artean. Orduraz geroztik ez da izotz gehiagorik sortu bertan.



Ganges ibaia jaiotzen den inguruan ez da izotz berririk sortu 40ko hamarkadatik.

Berotegi efektuak izotzaz defendatzea galaraz diezaieke Antartikako arrainei



OZEANO ANTARTIKOAN bizi diren arrainen %90 nototenoideo familiakoak dira. Betidanik zientzialarien interesa piztu dute, oso ur hotzetan bizitzeko duten gaitasuna dela eta.

60ko hamarkadan, Illinoiseko Unibertsitateko (AEB) Arthur DeVries ikerlariak izotzaren aurkako proteinak topatu zituen arrainetan; proteina horiek odolean

sortzen diren izotz kristalekin nahastu eta haiek desagiten dituzte.

Orain, unibertsitate bereko Chi-Hing Christina Cheng-ek proteina horiek nola sortzen diren aztertu du, eta urteetako moldaketa genetikoaren ondorioa direla ebatzi du. Baina milaka urtetako prozesuak aurkako bidea egin dezake berotegi efektua areagotzen bada. Horretarako, milaka urte ez, hamarkada gutxi batzuk baino ez lirateke behar izango, eta arrainek ez lukete egokitzapenerako astirik edukiko.

Hidrogeno sulfuroak sudurrari eraso, baina osasunari mesede

Arrautza ustelen usaina hidrogeno sulfuroari zor zaio. Guk ere badugu: kolonean apopilo ditugun bakterio batzuek ekoizten dute. Usaina eta ospea, zein baino zein txarragoa ditu gas honek, baina orain gutxi gure odol presioaren erregulatzaile bikaina dela aurkitu du nazioarteko ikerlari talde batek.

www.amazings.com/ciencia/noticias/151208b.html

Gurea ez den planeta sistema baten lehenengo irudiak

Hawaiin dagoen Gemini Norte teleskopioa erabiliz, astronomo talde batek lehen aldiz lortu ditu izar baten eta haren inguruan biraka ari diren planeten irudiak, gure Eguzki Sistematik kanpo.

www.amazings.com/ciencia/noticias/121208d.html

Matematika izan daiteke finantza krisiak aurreikusteko arma onena

Raphaël Douady CNRSko ikerlariak dioenez, finantza munduak ez du oraingoa bezalako krisi baten etorreraz alde aurretik ohartaraz gaitzakeen adierazlerik. Hori konpontzeko, finantzen eta matematikaren arteko harremana sendotu behar dela uste du Douadyk.

<http://ttiki.com/1660>

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza 
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16